

ARIKETAK: 1. IKASGAIA

1.- Aurkitu itzazu baliabide didaktikoaren hiru definizio:

- 1.
- 2.
- 3.

Alderatu itzazu, argituz, euren arteko desberdintasun nagusiak

2.- Informazioaren paradigmak hiru sistema mota lotu ditu: zerrenda itzazu hiru sistema horiek bakoitzean nagusitu den prozedura azalduz.

3.-Kokatu ezazu, taula osatuz, irakaslearen, ikaslearen, ikastetxearen eta baliabidearen funtzioa paradigma bakoitzaren arabera.

	teknikoa	praktikoa	kritikoa
irakaslea			
ikaslea			
ikastetxea			
baliabidea			

4- Hurrengo testu bakoitzean identifikatu zein den oinarrizko paradigma. Justifikatu egiten duzun aukera.

- a) "Hezkuntza da belaunaldi helduek oraindik gizarte-bizitzarako beharrezko den heldutasun-maila lortu ez dutenengan duten eragina. Helburutzat dauka umearengan piztu eta garatzea halako egoera fisiko, intelektual eta moral batzuk, umeari eskatzen dizkietenak bai gizarte politikoak bere osotasunean eta bai ingurune espezifikoak, norako bereziki destinatua baitago".
- b) "Curriculum zehaztapen hipotetiko bat da, galderei eta egiaztapenei irekia, bere baitan ezagutza osatu eta kudeatzen duena. Curriculumaren garapen eredu baten barruan ekintza batzuen bidez prozedura printzipioak zehazten dira. Horrela, horien bitartez, jarreraren emaitzak ezartzen dituen printzipioak garatu beharrean, irizpide profesionala garatzeko bide ezin hobea eskaintzen zaigu. Irakaskuntza, menpera daitezkeen teknologiak baino zerbait gehiago da, arte bat da, eta artista ikertzaile "par excellence" da. Formaren kontzeptua erabakitzaileria da Humanitatetako kalitate-irizpideetan. Forma arauen bidezko prozedura diziplinatua da. Ideiak behar bezala egiaztatzen dira, praktikaren bidez eta gogoetaren argiaren errendimenduari egokituz" [...] "Curricula guztiak ezagutzaren izaeraren inguruko zein irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren izaeraren inguruko balizko tesi frogagarrien aldaketak

dira. Ikerketaren eta curriculumaren garapenaren funtzioa curricula sortzea da, eta honen ondorioek giltzatuak eta esplizituak izan beharko dute, eta horregatik, irakaslearen ebaluaziopean egongo dira. Curricula horiek ideiak formen bidez adierazteko baliabideak dira, eta irakasleek forma horiek frogagarri bihurtzen dituzte euren laborategietan, ikasgeletan, alegia".

- c) "Kalearen alde batean egonik, inor ezin egon daiteke gero beste aldean, kalea zeharkatu ezean. Alde honetan banago, ezin irits naiteke hango aldera handik abiatu, hemendik baizik. Berdin gertatzen da errealitatearen ulermen hain estu, hain zorrotzarekin ere. Hezigaiak –edonortzu direla ere- beren errealitate bereziari buruz dituzten ulermen-mailak begirunez onartu behar ditugu. Haien askapenaren izenean gure ulerpenera ezartzea askatsun-bide bezala irtenbide autoritarioa onartzea da.

Baina hezigaien tolesgabetasuna geure gain hartzeak, beraien kritika-ahalmena ere geure gain hartzeko beharrezko apaltasuna eskatzen digu, beronen bidez tolesgabetasuna ere gaituz.

Soilik hezitzaile autoritarioek ukatzen dute hezte-egintzaren eta hezigaiak hezia izateko egintzaren arteko elkartasuna; soilik haiek bereizten dute irakaste-egintza egintzatik, era honetan bere burua jakintsutat duenak irakasten duelarik eta ezjakintzat hartzen denak ikasten duelarik.

Izan ere, 'dakienak ez dakienari irakasten dio' esanak bere izaera autoritarioa gaitutako badu, beharrezkoa da dakienak, batez ere, inork ez dakiela oro eta ezer ez dakienik ez dagoela jakin dezan. Hezitzaileak, dakiena den aldetik, lehenik, gehiago jakiteko prozesuan ari diren hezigaiak, berarekin batera, prozesu horretako subjektutat hartu behar ditu, eta ez jasale apaltzat; bigarrenik, onartu egin behar du ezagutza ez dela datu bat, zerbait ibilgetua, amaitua, burutua, bereganatu zuenak oraindik ez daukanari eroan beharrezkoa"

5- Multimediai izan daitezke hezkuntza berritzeko tresnak: azal ezazu zergatia

6- Desberdindu Irudiaren Pedagogia eta Irudiaren bidezko Pedagogia, azalduz ia osagarrian diren.